

ANDRES IRUJO OLLO (1907-1993) ETA EUSKAL ERBESTEKO KULTUR EKINTZA BUENOS AIRESEN

Xabier Irujo Ametzaga

Lizarran jaio zen Andrés Irujo Ollo 1907. urteko azaroaren 29an, Lizarrako patroia den Ander deunaren egunean alegia. Andrés María Saturnino Honorato bataiatu zuten. Daniel Irujo Urraren (1862-1911) eta Aniana Ollo Elordiren (1866-1950) semea zen. Daniel Irujok, Deustuko Unibertsitateko lehen irakasle laikoa, zuzenbide prozesala eta zuzenbidearen historia irakasten zuen. Sabino Aranaren lagun hurkoa, 1896an eta 1902an Aranaren kontra irekitako kasu judizialean jeltzalearen abokatua dugu.

Sei anai-arreben artean gazteena, Andrés jaio aurretik amak bi seme-alaba galdu zituen jaio eta hilabete gutxi ondoren, María Luisa eta Francisco Xabier, 1904ean eta 1905ean hurrenez hurren. Anai zaharrena Manuel (1891-1981) dugu; Eusebio (1893-1968), María Rosario (1894-1925), Juan Ignacio (1897-1969), Delfín (1900-1988) eta Josefina (1902-1992). Andres jaio eta hiru urte geroago bikotearen azken semea jaioko zen, Pello Mari (1910-1983).

Lau urte zituelarik birikeriak jota hil zen aita 1911an. Zazpi urte geroago, 1918an, gripe espainolaren eraginez hil zen Aurelia Pozueta, Manuelen emaztea. Emaztearen heriotzak bakarrik utzi zuen Manuel, Mirentxu (1917-1985), urte eskas bateko alabarekin. Ondorioz amaren etxera bueltatzea erabaki zuen Manuelek eta, Danielen heriotzak utzitako hutsunearen ondorioz zein, Manuel Andrés eta Pello Mari baino hamazazpi eta hogeitau urte zaharragoa zela kontutan izanik, aita izan zen Manuel anai gazteentzako.

Irujotarrak, kirolaren bitartez Nafarroan euskal giro politikoa eta kultura zabaldu nahian, Lizarrako Izarra futbol taldearen osaketan parte hartu zuten, bai eta Merkatondoa futbol zelaiko erosketan ere. Juan Ignacio, Andrés eta Pello Mari, Izarra taldeko aurrelariak izan ziren. Bestalde, anai zaharrenak, Manuel eta Eusebio, akziodunak, futbol taldeko batzarkideak.

Beste anai arrebak bezalaxe, gazte dugu Andrés Euzko Alderdi Jeltzaleko kide. Alfonso XIII.ak ezarritako diktaduraren eragina jaso zuten ere, Manuel diputatu kargutik kendu zuen erregimenak eta Delfín 1925eko urrian atxilotu zuten.

Lekarozko Colegio de Nuestra Señora del Buen Consejo ikastetxean egin zuen Batxilergoa eta 1930ean zuzenbidea burutu zuen Andrés-ek Deustuko eta Madrilgo Unibertsitateetan eta Manuelen abokatu-langelan laguntzaile dugu urte horretan bertan.

1933an, Manuel Gipuzkoan diputatu hautatua izan eta gero, Andrés langelaren kudeaketaz arduratuko zen, era berean, Manuelen idazkaria zelarik. Urte zukutsuak izan ziren hauek, politikoki zein laboralki, *se convierte en lector ávido de periódicos, libros, revistas y folletos de tema político pero también de cultura general. Manuel intervino en diferentes momentos en las comisiones de obras públicas, presupuestos, agricultura, instrucción pública, trabajo, sanidad y previsión, industria y comercio del congreso, así que sobre estos temas había que estar al día y lo estaban por la enorme cantidad de folletos y catálogos que se encuentran en la biblioteca familiar, además del tema vibrante del nacionalismo vasco, de la reconstrucción nacional de Euskal Herria,*

· University of Nevada, Reno.

*de sus fueros, usos y costumbres. Si la Universidad de Madrid lo licenció en leyes, en esos años del despacho de su hermano Manuel, Andrés se convirtió en un perfecto documentalista tal como hoy consideramos el paciente, humilde y gratificante oficio de bibliotecarios y archiveros*¹.

Uztailaren 18an Tolosarantz trenez zihozazenean altxamenduaren berri izan zuten Manuelek eta Andrés-ek. Orduan Manuel Tolosako Paper-fabrikako akzioduna eta enpresako batzorde eragilearen mahaikide zen.

Gau horretan bertan abiatu ziren Donostiara anaiak Gipuzkoako diputatu jeltzaleekin biltzearren. Donostiako Estornés Legazpi ikastetxean, Andres eta Manuel Irujoz bestalde, Joxe Mari Lasartek, Telesforo Monzonek, Arzelusek eta Antoñanzasek eman zuten gaua. Gau luzea izan zen hura. Telefono deiak, informazioaren egiaztapena eta, batik bat, hurrengo egunetako plangintza osatu izan zuten lan larriena. Gau osoa bilduta egon ondoren Donostiako Kaputxino elizan meza aditu zuten goizeko zortzietan eta, goizean goiz, Gipuzkoako Jesús Artola Goikoetxea gobernadore zibilarekin bildu ziren Lasarte eta Irujotarrak. Bileraren helburua bikoitza zen, alde batetik Euzko Alderdi Jeltzalearen errepublikarekiko atxikimendua adierazi eta, bestetik, gobernu zibilaren jarrera argituz, hurrengo asteetarako plangintza martxan jarri. Uztailaren hogeita batean Euzko Alderdi Jeltzaleak *Euzkadi* eta *La Gaceta del Norte* egunkarietan alderdi jeltzalearen altxatuen kontrako jarrera irmoa adieraziz artikulu bat plazaratu zen².

Diputatu jeltzaleek harturiko lehen neurrietariko bat, Loiolako kuarteleko armak eta munizioa eskuratzea izan zen. Eginkizun horretan EAJ-ko Manuel Irujok, Andrés Irujok, Rafael Pikabeak, Juan Antonio Irazuztak, Joxe Mari Lasartek eta, Partido Socialista-ko Miguel Amilibiak lan egin zuten. Ildo honetan bertan, Eusko Gudarostea antolatzeke lehen urratsak eman zituzten Irujok eta Lasartek, Azpeitiko Loiola sailindutegian abuztuaren 8an erroldatzeko deia plazaratuz, Euzko Abertzale Ekintza eta Euzko Alderdi Jeltzaleko hainbat eta hainbat kide bertaratu zirelarik. Eusko Gudarostea antolatzeke osatutako lehen batzordea Cándido Sasetak komandanteak, Manuel Irujo, Juan Kareaga eta Joxe Mari Lasarte diputatu jeltzaleek, Lino Lazkano Euzko Nekazari Batzaren ordezkariak, Salvador Aranburu Euzko Langile Alkartasuna sindikatuko ordezkariak, Tomás Mitxelena Euzko Abertzale Ekintza alderdiko ordezkariak eta Mikel Alberdi Euzko Mendigoizale Batzako ordezkariak osatu zuten.

Uztailaren amaieran, Irujotarrak Urbasa mendian udako oporretan zirela, Lizarrara abiatzeko mezua jaso zuten, jende asko tirokatzen ari baitziren hiri eta herrietatik at eta, nonbait, seguruago egongo ziren etxean, Lizarran bertan. Etxean zirela, gauetz, matxinatuak heldu eta aterarazi zuten bertan ziren familiako kide guztiak, Eusebio Irujo eta Pilar Elizalde, Delfin Irujo, Josefina Irujo eta Javier Blanco, eta Mirentxu, Manuelen alaba alegia. Haiekin batera etxeko zerbitzariak Lizarratik alde egin zuten ere, Lizarran burumakur bizitzea baino espetxean Irujo familiarekin bat igortzea hobe zutela adieraziz. Gizonezkoak Iruñeko espetxean giltzapetu zituzten eta, emakumezkoak Ursulinas komentuan. Bi hilabete geroago, irailaren 26an, Pilar Elizalderen bigarren alaba, Marilo, bertan jaio zen.

Altxamenduak *checas* izeneko bat-bateko eta legez kanpoko epaitegien osaketa suspertu zuen Gipuzkoan. Zenbait gipuzkoar eskuin politikoko burukide hil zituzten horrela. Hain zuzen, Loiolako kuartelaren errendizioa eta gero, horietako epaitegi batek sei ofizialei heriotza zigorra ezarri zien. Manuel Irujok kondena ez gauzatzeko agindua luzatuko zuen, alabaina, orduko

¹ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, “Andrés Irujo Olló. El documentalista vasco del exilio”, José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultural de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturraran, Donostia, 2000, 259-284. orr.

² *La Gaceta del Norte*, Bilbo, uztailak 21, asteartea, 1936.

ofizialak fusilatu zituzten. Halako ekintzak saihestearren Miguel Amilibia sozialistaren lehendakaritzapean Gipuzkoako Defentsa Batzordeko Komisaldegia osatzea erabaki zuen probintziako agintaritzak. Amilibiaren uko egiteari Telesforo Monzonena jarraitu zion, azkenik, Manuel Irujok estaturik, Andres Irujok komisaldegia ardurari baietza eman behar izan zion. Andrés Irujoren ondoan hilabete horietan Miguel José Garmendiak, Nafarroatik ihes egin ondoren Espetxe Zuzendaritzaren lehendakari izendaturik, Irujotarrekin guda amaitu arte gatibuen trukaketan arituko zenak lan egin zuen. Era berean, altxamenduaren lehen hilabete horietan Cándido Saseta Euzko Gudarostearen komandanteak Irujorekin lan egin zuen Gipuzkoan. Aunitz hilketa galarazi zituen Andrés-ek, besteak beste, Fernando Sasiain Donostiako alkatearena. Ildo honetan bertan, Ondarreta espetxean fusilamendu pelotoi bati aurre egin zion, bakarrik eta armarik gabe, bost gizonen erailketa eragotziz. Halarik ere, Ondarretatik ateratzean, bi gizon fusilatu zituzten. Bakegintzarako garai latzak ziren haiek.

Zenbait matxinatuen aldeko politikari eta militarren bizia salbatzearen, azken hauek Guadalupe gotorlekura igortzea erabaki zuen Irujok. Bertan sartu zituen, besteak beste, Víctor Pradera, Honorio Maura eta Joaquín Beunza. Halarik ere, nahiz eta neurriak hartu, nazionalek Irun garaitu eta ordu batzuk lehenago zenbait milizianok bertan gordetakoak erail zituzten. Propaganda frankistak zabalki eskukatu zuen Beunzaren lintxamendua, hilketarekin deus ikustekorik izan zuten hainbat eta hainbat errepublikarrei fusilamenduaren errua egotziz, besteak beste, Andrés eta Pello Mari Irujori, momentuan Manuelekin batera libre ziren Irujotar bakarrak alegia. Izan ere, behin baino gehiagotan saiatu ziren Manuel eta Andrés berrogeita hamar bat nafar gatibu Pradera, Maura eta Beunzarekin trukatzeko, halarik ere, Mola jeneralaren aginduei jarraiki ez ziren ganbiorik egin. Lortu zuten gauza bakarra Beunzaren emaztearentzako ibiltzeko baimena izan zen, *la viuda de Julio Ruiz de Alda, Aurelia Azarola, absuelta por los Tribunales en juicio de revisión, sigue en la cárcel porque el Ministro de Gobernación no se resuelve a ponerla en la calle. Manuel Irujo -Ministro de Justicia- propone llevarse a su casa a aquella señora. Así gana su libertad. De manera similar sucedió con la viuda de don Joaquín Beunza y con la esposa de don Luis Lucia. Apuntes mecanografiados de Manuel Irujo. Fecha posible: Valencia, junio 1937*³. Pilar Elizalde Isidro Gomá kardinalarengana laguntza eta gupida eskatzen abiatu zenean, azken honek, hitza egiteko baimena ukatuz, Eusebioren emazteari senarra bizirik mantentzea aski sari zuela aditzera eman zion⁴.

Iruneko garaipenaren aurretik suertaturiko hilketak zirela eta, Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Saseta komandantearen indarrak Donostian azken momenturaino mantentzea erabaki zuen. Berdin jokatu zuen Eusko Jaurlaritzak nazionalek Bilbo hartu baino lehen, Jesús María Leizaola sailburuak hiriko espetxeetan ziren atxilotuak salbu jarri zituzten, matxinatuen eskuetan. Bizi asko salbu jarri zituen neurriak.

Aunitz jendez gain, ondasun publikoak eta pribatuak zaindu eta babestu zituen Gipuzkoako Batzordeak. Besteak beste, Andrés Irujok Julio Urquijoren liburutegia gorde zuen, *en nota cronológica del Boletín del Instituto, 1950, Andrés comenta con respeto a Urquijo que la Biblioteca, una de las más importantes de Euskadi, contenía 14.000 volúmenes, donados luego a la Diputación de Guipúzcoa. Mal destino han tenido las Bibliotecas en nuestro país, se queja Andrés. La de Ernesto Delmas se quemó en el asedio de Bilbao de 1872; la de Lezama Leguizamón, en Algorta, que cuidó en la guerra de 1936 Vicente Amezaga, se quemó en 1950; menos mal que las*

³ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, "Andrés Irujo Olló. El documentalista vasco del exilio", José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultural de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturrarán, Donostia, 2000, 259-284 orr.

⁴ Pilar Elizalde Esandi, lekukotza. Elkarrietzeta, Lizarrako etxean, urtarrila-ekaina, 2002.

*Diputaciones Vascas, conjuntamente, aprobaron comprar la de Louis Lucien Bonaparte, el príncipe-bibliófilo*⁵.

Nazionalak Euskal Herriko frontea garaitu ondoren, Manuel Irujorekin batera joan zen Andrés Madriler, Balentziara eta Bartzelonara hurrenez hurren, justiziako ministroaren idazkari lanetan. Goian esan bezala, eginkizun honetan gatibuen trukaketan aritu ziren Irujo eta Garmendia nagusiki. Ildo honetan bertan, Frantziako Errepublikako Adiskideen elkarteko Euskal Herriko azpibatzordearen idazkaria izendatzen dute Andrés 1938an. Lucio Aretxabaletarekin batera idazkari gisa eta, Euzko Jaurlaritzako Perpignaneko ordezkari gisa, 1936ko gudaren eraginez frantziar estatuan euskal errefuxiatuen errolda osatu zuen, behar gorrian bizi ziren errefuxiatuei, lana, bazka edota sorospen medikua eskainiz.

Nazien 1940ko Europako mendebaldeko garaipenak Ameriketako bidea hartzera behartu zituen jada erbesteraturik bizi ziren zenbait euskaldun. Andrés, 1940ko urria aldera, Aniana Ollorekin, Josefina Irujorekin eta Ángel Blancorekin Argentinara abiatu zen itsasontziz. Marseillatik Lisboara, Portugaleko erregimeneko poliziak trabak jarri zizkion Ameriketarantz abiatzeko. Hamaika liskar eta arazo izan ondoren, Miguel José Garmendiarekin itsasoratu zen. Abenduan porturatu ziren Buenos Airesen, bertan *Laurak Bat* eusko etxeko kideek txistu eta dantzariekin etorri berriak agurtu zituztela. Roberto Ortiz (1882-1942) lehendakariaren dekretuari jarraiki, ailegatu berriek hilabete batean Argentinako naziotasuna eskuratu zuten bai eta, eusko etxeko kideen laguntzarekin, lana ere bai.

Lizarrakoarentzat laugarrena zen Argentinako erbeste honetan 1936an etxetik alde egin zuenetik, bi proiektu bulkatu zituen eraginkortasunez kultur arloan, hots, Ekin argitaletxearen eta Instituto Americano de Estudios Vascos elkarte kulturalaren osaketa. Honekin batera, 1950etik aurrera, Amerikako Eusko Ikaskuntzen erakundearen aldizkaria ere plazaratzen eta argitaratzen lagunduko du Irujok 1993 arte (*Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*).

Argitaratze lanaz gain, edo, hobe esan, argitaratze lanarekin batera, bi liburu idatzi eta argitaratu zituen Irujok. 1944ean plazaratutako *Los Vascos y la República Española. Contribución a la historia de la guerra civil, 1936-1939*⁶ eta *Los Vascos y las cruzadas*⁷, P. A. Sánchez Gamarraren hitzurrearekin eta Kerman Ortiz Zaratek irudizaturik, 1946ko azaroan plazaratutakoa. Lehenengoan 1936ko gudaren lehen hilabeteetan Gipuzkoako Defentsa Batzordeak burututako lanaren inguru idatzi zuen Irujok. Biak *Andrés de Lizarra* ezizenarekin sinatu zituen.

Buenos Airesko Acción Vasca elkarteko lehendakari ordea, Laurak Bat eusko etxeko lehendakari ordea eta Euzko Txokoa elkarteko bokala dugu Andrés 1957 eta 1959 bitarte.

Berrogeita hamar bat artikulua idatzi zituen Amerikako Eusko Ikaskuntzen Institutuko aldizkarian Irujok ere. Hauen artean Buenos Airesko euskal abizenen bildumak aipu berezia merezi du. Abizen bilduma tradizio handiko lana zen hego Amerikako eusko etxeetan. Hain zuzen, 1944ean Bingen Ametzagak Uruguaiako Unibertsitatean Eusko Ikaskuntza Batzordea osatu zuenean, bideraturiko lehenengo lanetatik bat, Uruguaiako euskal abizenen errolda osatzea izan zen, urteekin 12.000 bat abizen bildu zituztelarik.

1978an, hirurogeita hamaika urte zituela, ezkondu zen Andrés Irujo María Elena Etxeberriekin, euskaldunen artean RH ezkorra faktorearen ugaritasuna ikertu zuen Etxeberri medikuaren alaba

⁵ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, “Andrés Irujo Olló. El documentalista vasco del exilio”, José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultural de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturraran, Donostia, 2000, 259-284 orr.

⁶ Lizarra, Andrés de (Andrés Irujo Olló), *Los vascos y la República Española. Contribución a la Historia de la Guerra Civil*, Ekin, Buenos Aires, 1944.

⁷ Lizarra, Andrés de (Andrés Irujo Olló), *Los vascos y las Cruzadas*, Ekin, Biblioteca De Cultura Vasca saila, 26. zkia., Buenos Aires, 1946.

alegia. 1993ko irailaren 29an, Mikel deunaren egunean hain zuzen, hil zen Irujo Buenos Airesko erbestean berrogeita hamahiru urte eman ondoren. Eta bertan dago ehortzirik.

***Instituto Americano de Estudios Vascos* kultur elkarte**

Andrés Irujoren eraginez *Instituto Americano de Estudios Vascos* erakundea osatu zen Buenos Aires-en 1943an. Erakundearen estatutuen arabera, elkarte euskal kultura zabaltzeko asmo irmoarekin sortuta zen, *institución captadora vigilante de las nobles inquietudes europeas entre las que se cuentan las del pueblo euskaro en torno a su propia historia y lengua*.

1943ko uztaileko 20ean osatu zen Amerikako Eusko Ikaskuntza Institutua, Enrique Gandia elkarteko kidearen etxean hain zuzen, *un grupo de argentinos de ascendencia vasca y de vascos residentes en quienes alienta la conciencia y el pundonor de la estirpe patente en el misterio del apellido le dieron vida por el sencillo procedimiento de estampar sus nombres en la primera página del que sería su libro de actas*⁸. Elkartearen lehen kideak ondoko hauek ditugu, alfabetikoki, Miguel Alzo (Aniceto Galarraga), Bingen Ametzaga, Bonifacio Ataun, Eulogio Aianz, Pedro Basaldua, Francisco Basterretxea, Santiago Cunchillos, Pedro Etxeberria, Nicolás Esandi Viedma-ko apezpikua, Enrique Gandia, Justo Garate, Gabino Garriga, Leo Goiti, Ildefonso Gurrutxaga, Andrés Irujo, Carlos Kukullu, Juan León Kruzalegi, Elpidio Lasarte, Félix Liozaga, Isaac López Mendizabal, Francisco Madina eta Rómulo Zabala.

1943ko abuztuaren 19ko erakundearen bigarren saioan onestutako estatutuen bigarren artikulua arabera, ondokoa dugu elkarte kulturalaren funtsezko helburua, *unir a los amantes del País vasco, especializados en algún aspecto de su prehistoria, historia, antropología, folklore, lengua, literatura, derecho, economía, arte y demás ciencias, e intensificar estos estudios, profundizando en ellos y divulgándolos*⁹. Helburu honekin institutuak ihardunaldiak, ikaskuntza biltzarrak, argitalpenak eta, oro har, Euskal Herriko historia eta kultura zabaltzen laguntzeko beste hainbeste ekitaldi sustatuko zituen.

Eulogio Aianzek, Enrique Gandiak eta Andrés Irujok idatzi zuten elkartearen estatutuak. Aho batez onestuz, aste bat geroago, abuztuaren 25ean, institutuaren mahaikideak hautatu zituzten. Monsinore Nicolás Esandi (1876-1948), Viedma-ko apezpikua, izendatu zuten lehendakari; Elpidio Lasarte, lehendakari ohia; Justo Garate, bigarren lehendakari ohia; Santiago Cunchillos, idazkari nagusia; Carlos Kukullu, diruzaina; Juan León Kruzalegi, diruzain ohia eta, azkenik, Andrés Irujo, idazkari.

Kide sortzaileak hogeita bi zirenez eta nola bai legez zein estatutuen arabera berrogeita bi biziarteko kide numerario eta botodun lagunez osaturik egon behar zuten elkarteak, ondoko hauek izendatu zituzten, José Urbano Aguirre, Adolfo Bioy, Carlos Alberto Erro, Juan José Espene (Centro Vasco-Francés elkarteko lehendakaria), Félix Etxegoien, Isidoro Fagoaga, Juan José Guaresti, José Gisasola, Diego Joaquín Ibarbia, Michel Iriart, Noel Iribas, Antonio Laskurain, Guillermo Legizamon, Pedro Mendiondo, Ramón Mendizabal, Salvador Oria, Esteban Otxoa (Centro Vasco-Argentino Gure Etxea elkartearen lehendakaria), Antonio Sagarna, José María Sarobe eta Saturnio Zanborain.

Monsinore Nicolás Esandi irailaren 5ean Buenos Aires-ko San Carlos ikastetxe salesianoan izandako bileran kargu berriaz jabetu zen. 1948an hil arte institutuaren lehendakaria izango zen Esandi, *adoraba el idioma de sus apellidos -culta demostración de su respeto y fidelidad al ius*

⁸ Boletín del Instituto Americano de estudios Vascos, I, 1. zbka., 2. orr., Buenos Aires, apirila-ekaina, 1950.

⁹ Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, I, 1. zbka., 2. orr., Buenos Aires, apirila-ekaina, 1950.

*sanguinis- y dirigiéndose al Intendente Municipal de Viedma, Javier Echarren, presente junto a su lecho le recordó la reciedumbre de la estirpe euskalduna y habló en vascuence*¹⁰. Idatzitako liburuen artean, guztiak pedagogi arlokoak, *Apuntes de pedagogía, Estudio metódico del latín, Mi libro para la enseñanza de la lectura eta Método de escritura* ditugu. Nekagaitz egin zuen lan Esandik Argentinako behe maila sozialeko haurren heziketaren alde, bazterreko auzoetan eskola katolikoak eraikiz. Era berean preso politikoen eta arrunten laguntzaile, azpimarragarria dugu Esandik Ushuaia Argentina hegoaldeko herriko giltzapetuen alde bideraturiko laguntza.

1950eko ekainean Instituto Americano de Estudios Vascos elkarteko aldizkariaren lehen alea plazaratu zen. Aldizkariaren egoitza soziala Ekin argitaletxearena dugu, hau da, Perú kalea 175, 11. bulegoa. Bostehun aleko tiradarekin, Argentinan, Uruguain, Txilen, Kolonbian, Mexikon, Estatu Batuetan eta Venezuelan banatzeaz gain, aldizkariko lehen alean aditzera eman zuten bezala, Euskal Herrian ere zabaldu zen, hain zuzen ere, Baionan, Bilbon, Iruñean, Donostian, Urrunen, Gasteizen, y *a donde quiera que sea*.

Etenik gabe plazaratu zuen Institutuak hiruhilabetekaria 1950etik 1993 arte, Irujo hil arte alegia. 1978an ere huts egin zuen aldizkariak, Andrés Irujo eta María Elena Etxeberriren ezkontzaren urtean hain zuzen.

Hasiera batean Buenos Aires-ko Escuela Gráfica Pío IX irarkolan inprimatu zen aldizkaria, halarik ere, finantzari arazoak bide, irarkola ezberdinekin lan egingo du Irujok aldizkaria plazaratutako berrogeita hiru urteetan: Editorial Tarabelli, Escuela de artes y oficios San Vicente de Paúl La Plata-n, Onopress irarkolan 1981etik 1987 arte eta, azkenik, 1987tik 1993 arte Salpe argitaletxean. Inpresio tokia maiz aldatu bazen ere, aldizkariak formatua mantenduko zuen berrogei urte horietan, *un formato de 26 cm por 20 de ancho le otorga un aspecto rectangular, cómodamente manejable. El papel, grueso, barato y el precio inicial de cada boletín es de 4 pesos argentinos. Los primeros boletines tendrán uniformemente 64 páginas cada uno, aunque a partir de 1957, bajarán a 48. Las tapas son de cartulina, no gruesa; la portada lleva en letra vasca el nombre del Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos y, en su centro, una composición gráfica de un dios indio y un árbol vasco de seis brazos, con la inscripción "Gurea berritzen". En la portada viene, invariablemente, el índice del contenido de cada volumen. Hubo un cambio en los números 100-102 (que fue extraordinario) y en los siguientes, nos. 103-109 pero, rápidamente se regresa a este formato. Al pie de la portada se registra el año, volumen, ciudad y fecha. Es una concepción de impecable estilo bibliográfico*¹¹.

Aldizkariko lehen zuzendaria Gabino Garriga aita izan zen. Garrigak artikuluak idazteaz gain, aldizkariaren bibliografi erreferentziak burutu zituen. 1964ean, adinagatik eta osasun egoeraren eraginez, zuzendaritza utzi zuen. Ondoren, Bonifacio Ataun aitak zuzendaritza jabetu zen eta, azkenik, Irujok¹².

Ekin argitaletxearen egoera finantzariari dagokionez, ez zuen ekonomikoki urte onik ezagutu institutuaren aldizkariak. 1978. urtean, ehungarren alea kaleratu zenean erredakzioak ondoko notatxoa plazaratu zuen, *pese a estas estrecheces económicas, continuas y afflictivas, gracias al entusiasmo por la causa y al generoso sacrificio de los verdaderos gestores de la publicación, el*

¹⁰ Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, I, 1. zbka., 2. orr., Buenos Aires, apirila-ekaina, 1950.

¹¹ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, "Andrés Irujo Olo. El documentalista vasco del exilio", José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultura de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturrarán, Donostia, 2000, 259-284 orr.

¹² Zabala, José Ramón, "Aproximación a la hemerografía del exilio vasco. 1937-1960", *La cultura del exilio vasco II*, pág. 94, José Ángel Ascunce, Donostia, 1994.

Boletín se ha ido publicando normalmente, sin interrupciones, llegando con regularidad a su número 100.

*Ustea ez da jakitea lelopean aldizkaria berehalaxe euskal erbesteko kulturaren eta historiako lehen forua bilakatu zen. Beste askoren artean, ondoko idazlek, kultura gizonak eta politikariek kolaboratu zuten aldizkariaren berrogeita hiru urtetan zehar, Francisco Abrisketa, José Antonio Agirre, Arantzazu Ametzaga, Bingen Ametzaga, José Antonio Ardanza, Iñaki Azpiazu, Joxe Miguel Barandiaran¹³, Pedro Basaldua, Julio Colombises, William A. Douglas, Maria Elena Etxeberri, Isidoro Fagoaga, Roslyn M. Frank, Jesús Galíndez, Jokin Ganboa, Enrique Gandia, Carlos Garaikoetxea, Justo Garate, Gabino Garriga, Cecilia G. Gilarte, Eugene Goienetxe, Juan José Guaresti, Ildefonso Gurrutxaga, Michel Iriart, Andrés Irujo, Manuel Irujo, Pello Mari Irujo, A. Laskurain, Ixaka López Mendizabal, Eneko Mitxelena, Miguel Pelay Orozko, Victor Ruiz Añibarro, Claudio Sánchez Albornoz eta José María Satrustegi, *tras las colaboraciones que, si eran extensas se publicaban en partes, el Boletín mantenía su sección de Libros y Revistas donde se reseñaban obras de actualidad publicadas en Euskadi, todas las de Ekin, y sumarios de las revistas de cultura vasca; le sigue Informaciones donde se reseñan los actos de los Centros Vascos, de la Academia de Lengua Vasca-Euskaltzaindia y de las conferencias que se dan sean en Argentina como en Venezuela o en México o en Euskadi. Todo lo vasco es reseñado en el Boletín. Pero no sólo con una cita escueta: lo comenta de modo objetivo, pero se extiende. Finalmente el Inventario Bibliográfico Vasco (1892-1950), ambiciosa obra de archivo bibliográfico que lleva a cabo G. Garriga y que finalmente debe compartir con Andrés, que la complementa en solitario. Se da autor, título y fecha del libro y se le reseña con amplitud*¹⁴.*

*Aldizkariko Sección Inventario Bibliográfico Vasco (1892-1950) delako atalak aipu berezia merezi du. Gabino Garriga aitak, hasitako bibliografi aipamenarekin, 1892 eta 1950 bitartean Euskal Herrian edo eta Euskal Herriari buruz argitaratutako liburu guztien errolda biltzeko asmoa izan zuen. Askok landu zuen gaia eta zerrenda osatua burutu zuen, nahiz eta lana ezin amaitu. Hain zuzen aldizkariaren lehen aleak adieraziko zuen bezala, *es un inventario sin pretensiones pues no he tenido acceso a la Biblioteca Nacional de París, ni a las de las capitales de Euskadi, ni a la colección del Príncipe Bonaparte cuyo “Catálogo de Biblioteca...” se publicó en 1895, ni a la de Julio Urquijo, G. Lacombe, ni a índices y ensayos bibliográficos como el de Angel Allende Salazar (1854-1885) y su “Biblioteca del Vascófilo” que registraba 2.207 obras impresas y algún manuscrito.* Hala ere, urteetan zehar Jon Bilbaok buruturiko *Eusko Bibliografía* lanaren aintzindaria dugu Garrigaren *Sección Inventario Bibliográfico Vasco (1892-1950)*.*

*Sekulakoa da Ameriketako Eusko Ikaskuntzen Institutuko lana. Arantzazu Ametzagak dion bezala, Ekin argitaletzeko hainbat eta hainbat liburu Institutuan egindako lanari esker argitaratu ahal izan ziren. Euskal erbesteko idazleek zenbait gaiei buruzko informazio iturri aberatsa izan zuten kultur elkarteko aldizkarian, *al final de cada año, en el último número, se presentaba un índice. Los primeros fueron ambiciosos: por materia y por autores. Pasando los años, se hace el simple listado de autores por orden alfabético. Pero esto, que parece tan sencillo, no era ni con mucho una modalidad en las publicaciones periódicas del mundo latino de su momento*¹⁵.*

¹³ 1975ean Institutuko ohorezko kide izendatu zuten Joxe Migel Barandiaran.

¹⁴ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, “Andrés Irujo Olo. El documentalista vasco del exilio”, José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultural de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturrarán, Donostia, 2000, 259-284 orr.

¹⁵ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, “Andrés Irujo Olo. El documentalista vasco del exilio”, José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultural de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturrarán, Donostia, 2000, 259-284 orr.

Ekin argitaletxea

Esan bezala, Buenos Airesen hilabete batzuk egin ondoren, Ixaka López Mendizabal argitaratzaile tolosarraren bilobarekin batera, Euskal Herriko kultura, gizarte, hizkuntza, historia eta politikari buruzko liburuak plazaratuko zituen argitaletxea antolatzea proposatu zion Andrés Irujok Ramón María Aldasoro Eusko Jaurlaritzako ordezkariari¹⁶. Ezin hobea iruditu zitzaion Aldasorori proiektua, ekonomikoki gauzatu ezina ordea. Mezenas baten beharrean, Sebastián Amorrorturengana jo zuen Irujok eta azken honek argitaletxearen kapitala aurreratu. Erbesteko enpresa honetan Erronkariko Bernardo Estornes Lasak lagundu zuen ere, Zabalkundea argitaletxearen zenbait lan Ekin etxean berriz ere argitara emateko baimena luzatuz. Era berean, Julio Urquijoren liburutegiko zenbait izenburu bildu zituen Jorge Riezu aitak kolaboratu zuen Ekineko hastapenetan. Jasotako laguntzari esker, 15.000 pesotako kapitalarekin, 1942an Buenos Airesko Perú kaleko 175. zenbakian euskal erbesteko lehen argitaletxea izango zen *Editorial Vasca Ekin, sociedad regular limitada* osatu zen. Arturo Campionen *El genio de Navarra* dugu argitaratutako lehen liburua. Arantzazu Ametzagaren hitzetan, *el catálogo de Ekin abarca temas políticos y doctrinarios del nacionalismo vasco (cuya dirección estaba bajo la dirección de Andrés), y de reedición de libros culturales (a cargo de López Mendizabal). Tenían sus “bestsellers” tal como lo fue el libro del Lehendakari José Antonio Aguirre De Gernika a New York pasando por Berlín. Todo el exilio vasco lo leyó conmovido. El catálogo de Ekin (...) divide de este modo su fondo: Biblioteca de Cultura Vasca donde se integran temas de historia, música, costumbres, literatura, tradiciones, legislación, arte, heráldica, apellidos, geografía, etc. Para ese año se habían publicado 64 títulos; Actualidad, compuesto por los “bestsellers” o libros de impacto, 11 títulos; Historia, 5 títulos; Biografía-viajes, 4 títulos; Literatura, 13 títulos; Varios, 11 títulos; Colección Aberria eta Azkatasuna, 8 títulos; Euskal Idaztiak o libros en euskera, 8 títulos; Revistas, compuesto por el Boletín del Instituto; Música, 2 títulos y, finalmente, la sección de tarjetas de Navidad, postales, mapas de Euskadi, tarjetas de Arturo Campion, Sabino Arana Goiri, caseríos vascos...*¹⁷

Lan itzela izan zen hori gizon bakar batentzat; hain zuzen 1948an Manuel Irujori eskutitzez adieraziko zion, *estoy solo en Ekin. No encuentro papel de avión, y en esta maquineta Baby, tampoco el truco para hacer pasar el papel de manera normal. La maquineta Baby, muy mona, es un retrato de Ekin*¹⁸. Pisutsua oso, argitaletxearekin batera Irujok jasan behar izan zuen erbesteko zama, guztiok hasiera batean motza oso uste izan zuten atzerriratzearen luzaketarekin bat, 1950ean amaren heriotza bizi zuen Irujok. Mirentxu Montevideon zegoela, Bingen Ametzagak eta Pedro Artetxek Manuelen alaba Anianaren azken orduetan amonarekin egon ahal izateko hegazkineko txartela lortu zuten. Andrés-ek gutun hunkigarri batean esker onak helarazi zizkien, *sois mis amigos acreedores para que las primeras letras que salgan de esta casa sean tras las dirigidas a los hermanos repartidos, como sabéis, por todo el mundo, a vosotros dos que sois un poco como hermanos espirituales en la desgracia y que habéis permitido que uno más de los hijos acompañe a la madre en el lecho de muerte. Estoy seguro de que si los otros hermanos hubieran*

¹⁶ Zabala, José Ramón, “Ekin: una luz en el túnel”, *La cultura del exilio vasco*, II., Ascunce, Donostia, 1994.

¹⁷ Ametzaga Iribarren, Arantzazu, “Andrés Irujo Olló. El documentalista vasco del exilio”, José A. Ascunce (Ed.), *Sesenta años después. La cultura de exilio vasco. Euskal erbestearen kultura*, Saturraran, Donostia, 2000, 259-284 orr.

¹⁸ Andrés Irujok Manuel Irujori idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1948ko urriak 4.

*encontrado colaboradores como vosotros, no obstante la distancia y las dificultades, habrían encontrado medio para llegar aquí. Sois admirables amigos. Todo lo habéis hecho muy bien*¹⁹.

Laboralki ere astunak eta latzak izan ziren argitaletxeak jasanarazi zizkion zamak. Ekonomikoki, argitaletxea martxan egon zen berrogeita hamar urteetan krisialdi kronikoan, hirutan banakarrotan gorria bizi izan zuen Andrés-ek. Arazo multzo horren eraginez nerbio atake bat jaso zuen 1954ean Andrések. 1954ko urtarrilean euskaraz idatzitako argitarapenei buruz ari zela, bi urtetan ezin izango zituztela zorrak kitatu adierazi zion Irujok Bingen Ametzagari, *no veo que podemos, de momento, hacer ninguna edición en euskera. Ni casi en castellano. Tenemos en la imprenta dos obras de Añibarro y Kaperotxipi. Pero también tenemos un saldo de cuenta con la imprenta muy respetable. Justamente por eso necesitamos fondos para rebajar la cuenta y poder empujar. Ellos saben perfectamente que nuestro movimiento de caja no nos permite, regularmente, pagar el saldo actual más que en dos años*²⁰. Halarik ere, gaitzak ez zion kazetari lanak oztopatu 1954ko urte latz hartan, ez eta Mar del Plata-n ospatu zen VII. Euskal Asteko ekitaldietan parte hartzea.

Alabaina, ez zen egoera aldatuko urteen joanarekin. Hain zuzen ere, 1953ko abuztutik Añibarroren liburua plazaratu zutela, 1954ko abuztua bitarte, Barandiaranen lana argitaratu zutela, ez zuen Ekinek libururik aterako²¹. Honetaz gain, ohean dugu Irujo, gaixorik, 1955eko urtarriletik martxora²². 1953-1955eko osasun arazoak eta krisialdi finantzari latza igaro ondoren, oztopoen aurrean indarberiturik, argitaletxearen aro berri bati aurre egin zion Lizarrakoak. Ametzagari, gutunez, idatziko zion ideia berriei buruz: *Nabarra está sin rumbo. Siendo los puntales del franquismo están contra Franco. Actualmente los carlistas no llenan. Están trabajando mucho con las danzas, con el euskera y, hoy en día, hay asistencias oficiales por las escuelas vascas que nunca hubo y premios a los mejores alumnos, etc. Sobre todo en las escuelas de la zona euskaldun. Pero políticamente, nada, absolutamente nada. Y en esas condiciones tratamos de hacer una serie de obras para distribuir en Nabarra, principalmente, gratuitamente, claro está. La primera que ya está en la imprenta el “Ami vasco” del padre Evangelista de Ibero, remozado y con notas actuales. La mitad de la edición pensamos que la reparta el EBB por medio del NBB, pero como cuesta dinero, para que no sufra la editorial, pensamos distribuir la otra mitad de la edición por América y que cada adquiriente de un ejemplar pague el costo de dos (...) Tras este folleto tenemos otro que jamás se ha visto impreso pues solamente se hizo una edición y ésta fue retirada por la policía de Isabel II o de Espartero allá en 1839. La obra se titula “Defensa y constitución del reino de Nabarra” por Ángel Sagaseta de Ilurdoz*²³.

2.500 ale banatu ziren, batik bat, apaiz eta fraideen bitartez, Araba eta Nafarroan. Iakakortaxarenak zenbait kapitulu berri gehitu zielarik, Lizarrako etxean gaztetan ezagutu zuen Aita Iberoren lanak argitaratu zituen ere. Liburuxka hauek, ezkutuan banatzen zirelarik, Euskal Herriko gatazka politikoaz eta Eusko Jaurlaritzaren erbestean bultzatutako borroka zaharrez ziharduten nagusiki²⁴. *Ami Vasco* eta gero, euskaraz, *Euzko ami* plazaratu zuen Irujok. Gerora, *Zure anaia ixilkari* arrakasta handiko liburukia 1958ko urtarrilean argitaratzera emango zuen ere²⁵.

Halarik ere, ez ziren hauek urte onak izango ere. Aurreko urteetan Ametzagari adierazitakoaren ildo berean aditzera eman zion oraingoan ere Ametzagari, *he pasado un año y medio o dos años muy disgustado. La imprenta adquirió maquinaria nueva y se encontró con que los cimientos del*

¹⁹ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1950ko uztaillak 17.

²⁰ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1954ko urtarrilak 15.

²¹ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1954ko abuztuak 21.

²² Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1955ko martxoak 5.

²³ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1955ko abenduak 6.

²⁴ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1957ko uztaillak 1.

²⁵ Andrés Irujok Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza. Buenos Aires, 1958ko urtarrilak 29.

edificio eran insuficientes dada sus revoluciones. Y comenzó por ahí y siguió trabajando, atendiendo los contratos urgentes e importantes y, a nosotros, nos dejó hasta que todo o casi todo quedó terminado. El no ver salida y dejar marchar el tiempo, tan urgente para nuestra misión nacional, me desanimó mucho. Tenía unos cuantos proyectos, publicaciones de folletos para la resistencia, etc. Y todo quedó en posibilidad. Pero al pasar todo ese tiempo se nos ha presentado otro problema. Los costos se han duplicado o triplicado. Y en todos estos años perdimos casi en tiempo y el dinero, pues continuamos manteniendo los precios de las últimas publicaciones y nos encontramos ahora, que no hay forma de atender pagos de la imprenta más que a nuestro ritmo que no es el que las circunstancias imponen. Solamente dos libros representan cuatro veces más de nuestro capital. Y según nuestros cálculos necesitaríamos tres o cuatro años para cubrir la deuda. La situación es tremenda. Y es preciso dar la cara y mirar a Euskadi. Dentro de pocos días nos entregan “Zure anaia ixilkari” en dos versiones, euskera y castellano, con mapas y gráficos. Se desarrolla nuestra doctrina con toda claridad y cuantas dudas puedan tener –quien las tenga-, debe encontrar la solución en las páginas del folleto. Éste está destinado, según las zonas, a ser distribuido por la resistencia entre la juventud vasca de hoy. Pero es necesario colocarlo. Cada uno de los números colocados representa de hecho dos, en cuanto al costo, puesto que el segundo irá a Euskadi²⁶.

